

Etxe giroan ere euskara erabiltzeko gomendioak, aukerak eta baliabideak.

0.- Sarrera:

Eskola presentzialak eten zirenetik, ikasle askok, batez ere familia ez-euskaldunen seme-alabek, euskararekin zeukaten lotura nagusia galdu dute: ikastetxean bertan ematen den ikaskide eta irakasleekiko ahozko elkarreragina.

Horregatik oso garrantzitsua da gure ikasleek, ikastetxera joan gabe etxean egon behar duten egoera honetan, ahal den neurrian euskaraz entzun eta hitz egiteko aukerak izatea.

Jarraian, hori lortzeko gomendio batzuk, zenbait herritan martxan jartzen ari diren ekimenak, eta baliabide batzuk zerrendatzen ditugu.

1.- Gomendioak:

Etxealdian ere, euskaraz. Zergatik?

Sarreran esan bezala, oso inportantea da ikasleek euskararekin lotura izaten segitzea, etxealdian egonda ere. Lotura hori, irakurmen eta idazmen esparruetan, nolabait mantendu egin da, irakasleak burutzen ari diren on-line bidezko eskola ez-presentzialetan. Entzumenean eta, batez ere, ahozko adierazmenean ordea, zailagoa izaten ari da, ikasleek ikastetxeetan zeukaten ahozko elkarreragina galdu egin dutelako. Arazo hau are larriagoa izaten ari da euskaraz ez dakiten familien kasuetan, seme-alabek ez dutelako etxean norekin euskaraz egin.

Horregatik, ikasleek euskarazko komunikazio gaitasuna galduko ez badute, berebiziko garrantzia dauka ikasleek etxean dauden bitartean euskaraz entzun eta hitz egiteko aukerak eta momentuak egoteak. Horrela, minimizatu egingo da galera hori, eta eskola presentzialak berriro martxan jartzean ikasketak arrakastaz ateratzeko moduan egongo dira.

Zer egin daiteke?

Gomendio orokorrak, edozein familiari begira:

1- Funtsezkoa da goiko gogoetak ikastetxeetatik familiei helaraztea, gure ikuspuntua haiekin partekatzea. Bat egin dezagun: ikasleen gurasoek ere argi ikus dezaten zeinen garrantzitsua den haien seme-alabek euskararekiko harremanari ahalik eta gehien eustea eta, batzuetan zaila dirudien arren, bideak egon badaudela.

2- Familiek ahalegina egin behar dute etxean ahozko komunikazioa areagotzeko, familia-kideen artean patxadaz hitz egiteko denbora hartu, momentuak bilatu. Zein hizkuntzatan? Familia hizkuntzan (hizkuntzetan), noski.

3- Euskaraz? Noski: *“ahal denean, dena; eta ezin denean, ahal dena”*. Familia askotan badago euskaraz dakien kideren bat. Kide horien artean euskaraz egitea oso garrantzitsua da.

4.- Etxean egon daiteke pertsona helduren bat (gurasoetako bat esaterako) euskaraz, maila apalean bada ere, badakiena baina segurtasuna ez duena ezozein egoeratan ikaslearekin euskaraz aritzeko. Kasu hauetan euskaraz aritzeko ‘une goxoak’ eta ‘seguruak’ bilatu daitezke:

- Ipuina kontatzeko (edo irakurtzeko) unea finkatzea. Halakoetan lagungarri izan daiteke helduak ipuina, aldez aurretik, bizpahiru aldiz irakurtzea, irakurtaldian seguruago sentitzeko eta egoeraz disfrutatu ahal izateko.
- Elkarrekin abestea gustuko euskal kantak, edota euskarazko kanta ‘ez ezagunen’ bila jartzea interneten (Badok.eus-en, Youtuben, spotify-n edo bandcamp musika plataforman). Txatxangorria.eus en karaokea egiteko ehundaka abesti ditugu.
- Elkarrekin euskaraz jolastea mahai jokoren batean edota mugimendu jolasaren baten, non normalean hitz, esaldi eta hizkuntza formula jakin batzuk baliatzen diren. Dokumentu honen 3. atalean (Baliabideak) euskarazko joku eta jolasak topatzeko hainbat toki aipatzen dira.
- Elkarrekin ikusi --eta komentatu-- tesesail bat, film bat edo dokumental bat. Dokumentu honen 3. atalean (Baliabideak) euskarazko ikus-entzunezkoak topatzeko hainbat toki aipatzen dira.

Garrantzitsua da ikasleek helduon konplizitatea ikus eta sentitu dezaten proposatzen diegun erronkan: haizeak alde jotzen ez duenean ere euskaraz aritzeko ahalegina egitea.

Baina, ikasleaz gain, etxean ez badago euskaraz dakien inor?

Ikaslea familian euskaraz dakien bakarra baldin bada:

1- Euskaraz aritzeko boluntario sareekin harremanetan jarri. Udalerri batzuetan, Udalak edota herri eragileek ekimen bereziak antolatu dituzte: ordenadore bidez boluntario euskaldunekin hitz egiteko sareak, ludoteka eta liburutegi birtualak... Inportantea da familiek antolatu diren ekimen horiek ezagutu eta baliatzea. Dokumentu honen 2. atalean (Ekimenak) garatzen da ideia hau.

2- Ikasteko laguntzak baliatu: beste boluntario sare batzuk ere antolatzen ari dira, oraingo honetan euskaraz etxeko lanak egiten laguntzeko. Hau ere 2. atalean gehiago garatu eta adibide batzuk aipatzen dira.

3- Euskarazko kultur produktuak (ikus entzunezkoak, literatura) kontsumitzeko aukera baliatu: Dokumentu honen 3. atalean (Baliabideak) dauden aukera anitzetako batzuk zerrendatzen dira.

Etxean euskaldun gehiago baldin bada:

1- Aurreko ataleko hiru gomendioak hemen ere baliatu daitezke, noski.

2- Familian bizi diren euskaldunen arteko ahozko elkarreragina euskaraz izatea inoiz baino garrantzitsuagoa da orain. Izan guraso, neba-arreba, aitite-amona... **euskaraz dakienarekin, euskaraz aritu!**

3- Euskaraz aritzeko **ohitura indartzeko edota sendotzeko ekimenetan parte hartu:** Euskaraz jakin arren, familia batzuetan ohiko hizkuntza erdara izaten da. Askotan ditugun hizkuntza portaerak aztertu eta horiek aldatu edo finkatzeko badago zer egin. Adibidez, Euskaraldia [Etxealditik](#)

Euskaraldira ekimena abiatu du: <https://euskaraldia.eus/etxealdia/>, etxean eta etxetik ditugun harremanetan (gertukoekin ditugun harreman horietan) euskara gehiago, gehiagorekin, gehiagotan erabiltzeko.

4- Familian **euskaraz jolastu**: Etxean hainbeste ordu igaro behar dugun egoera honetan, jolastu ere egin behar da, noski. Euskaraz jostatzeko aukera anitz daude, eta horietako asko sarean daude eskuragarri. Gonbidatzeko bideoa [hemen](#) ikus dezakezue, eta dokumentu honen 3. atalean (Baliabideak: Jolasak euskaraz) aukera horietako batzuk zerrendatzen dira.

2.- Ekimenak:

Mintzalagunak: boluntario euskaldunak, familia erdaldunen seme-alabekin euskaraz aritzeko, eskolako lanekin laguntzeko...

Arazoaz jabetuta, herri batzuetan hainbat eragile hasi dira ekimen desberdinak antolatzen. Jarraian, horietako batzuk zerrendatzen ditugu:

- **Bilbo**: Boluntario euskaldunen sareak, auzoka antolaturik, familia erdaldunen seme-alabekin euskaraz aritzeko .
[HEMEN](#), Uribarri auzoko ekimenaren azalpenak.
[HEMEN](#), Deustukoek Ikastetxeetara bidalitako azalpen-mezua.
- **Donostia**: Haurrentzako euskaraz etxerako lanen laguntza eta mintzapraktika.
 - [HEMEN](#), boluntarioak bilatzeko egin duten kartela, eta [HEMEN](#) laguntza eskaintzekoa
 - [HEMEN](#), Axular ikastetxeak familientzat prestatu duen galdetegia. **Lehen Hezkuntzako Ikasleei laguntzeko, Donostian**: 680 671 818 telefonoa
- **Bergara**:
 - [HEMEN](#), “Umeak etxean” Programa. Etxeko lanak egiteko laguntza behar duzu? LHrako
 - [HEMEN](#), “Umeak etxean” Programa. Aisialdirako baliabideak
 - [HEMEN](#), EUSKARA ERREFUERTZUEN PROGRAMA. Egokitu da COVID19 egoerara.
 - [“Txapa irratia”](#) Herriko irratiko ohiko programazioan umeentzat saio bereziak txertatu dira (astean behin)
- **Gernika-Lumo**: Haur eta gazteei etxealdian euskaraz mintzatzeko aukera ematen zaie.
 - [HEMEN](#), bolondresak apuntatzeko formularioa.
 - [HEMEN](#), haur eta gazteak apuntatzeko formularioa.
 - **Kontakurako emaila**: konfinamendukomintzapraktikak@gmail.com
- **Erreterria**: Haurrei laguntzeko boluntarioen sarea eratu da, Udalak (Hezkuntzak) sustatuta. Boluntarioak harremanetan jartzen dira ikastetxeekin (tutoreekin) laguntza behar duten ikasleekin kontaktuan jarri ahal izateko.
- **EBETEK antolatutako *Mintzapraktikak etxealdian LHko ikasleentzat***: Proiektu honi buruzko

informazioa, [HEMEN](#).

- **DBH eta Batxilergoko gazteei ikasketekin laguntzeko sarea (UIB):** Unibertsitateko ikasleengandik sortu da ekimen hau. [HEMEN](#), Argia aldizkarian agertu den informazioa.
- **Euskaltzaleen Topaguneko MintazlagunON Sarea.**
- **EHIGEk ateratako Ikasbiklik, euskarazko etxerako lanekin laguntzeko aplikazioa.**

3.- Baliabideak

Euskarazko ikus-entzunezkoak:

EITB nahieran: <https://www.eitb.tv/eu/>

- **Bitartean, etxetik ikasten** saioa: Hezkuntza sailak ETB3rekin batera sortu duen tele-saioa, etxealdian irakaskuntza prozesuan laguntzeko. Nahieran ikusi ahal izateko azalpenak, [BIDEO HONETAN](#).
<https://www.eitb.eus/eu/hiru3/bitartean-etxetik-ikasten/>
- **Etxekoak:** Koarentenari buruzko umorezko telesaila.
<https://www.eitb.eus/eu/telebista/programak/etxekoak/>
- **Film luzeak**, 50 pelikula baino gehiago: 'Zinema Euskaraz' aukera menu nagusia edo 'Film Luzeak' atala saio-motaren arabera bilatuz gero. Gainera, saio-motaren arabera bilatuta '**Haurrentzako Filmak**' (10 bat) topatuko ditugu. 'Haurrak' atalean. Film gehienek fitxa teknikoa (laburpentxoaren barne) eta filma ikusteko sarbide zuzena <https://www.eitb.eus/eu/kultura/zinema-euskaraz/> helbidean (gehienena bai, baina ez guztiena, azkenekoak falta dira besteak beste)
- '**Haurrak**' atalean (Saio Motak menuan ere) haurrentzako programa ugari: *3Ene Kantak, 3txulo, Altza Porru!, Barrebusa, Don Don Kilikon...*
- '**Telesailak**' atalean (Saio Motak menuan ere) etb-k ekoitzi dituen telesailak, besteak beste: *Aitarene Etxea, Balbemendi, Benta Berri, Bi eta Bat, Brinkola, DBH,, Eskamak Knetzen, Goazen, Goenkale, Hasiberriak, Jaun eta Jabe, Lars Zonbia, Martin, Mugaldekoak...*
- '**Umorea**' atalean ('Saio Motak' menuan ere): *Arregitarak, Batek Daki, Bodologuak, Finlandia, Funtzioa, Kontuz Atsuak, Wazemank...*
- **Ipuinak:**
 - *Ipupomamua.*
 - **Zuhaitz etxeko istorioak**, Haur literatura edo irakurzaletasunarekin lotutako marrazki bizidunak:

ETBko Hiru komunitatean: <https://www.eitb.eus/eu/hiru3/>

- ◆ marrazki bizidunak, bideoak eta jolasak euskaraz, adinaren arabera sailkatuta.

Ikusi eta ikasi: <https://www.ikusietaikasi.eus/>

- ❖ Familian euskaraz gozatzeko tailer eta ikuskizunen zirkuitua antolatu dute: ipuin kontalariak, dantza saiotxoak, magia eta yoga tailerrak besteak beste.

ARGIA Multimedia: <https://www.argia.eus/multimedia>

- Film laburrak, 223 une honetan: <https://www.argia.eus/multimedia/film-laburrak>
- Antzezlanak, 22 une honetan: <https://www.argia.eus/multimedia/antzezlanak>
- Dokumentalak, 408: <https://www.argia.eus/multimedia/dokumentalak>
- Erreportajeak, 933: <https://www.argia.eus/multimedia/erreportajeak>
- Elkarrizketak, 312: <https://www.argia.eus/multimedia/elkarrizketak>
- Solasaldiak, 475: <https://www.argia.eus/multimedia/solasaldiak>
- Web telesailak:
 - ◆ **Gutuberrak:** <https://www.argia.eus/multimedia/gutuberrak>,
 - ◆ **Kartzela:** <https://www.argia.eus/multimedia/kartzela>
 - ◆ **Nomofobikoak:** <https://www.argia.eus/multimedia/nomofobikak>
 - ◆ **Tantaka:** <https://www.argia.eus/multimedia/tantaka>
 - ◆ **Txoministak:** <https://www.argia.eus/multimedia/txoministak>
- Youtuberrak:
 - ◆ **Super Txope:** <https://www.argia.eus/multimedia/super-txope>,
 - ◆ **Maritxu, nora goaz:** <https://www.argia.eus/multimedia/maritxu-nora-goaz>

Beste iturri batzuk:

- Tinko elkarte, Euskarazko Zinema Etxean Ikusgai.
 - **HEMEN**, ekimenaren azalpena.
 - **Informazio gehiago:** <http://tinkoeuskara.eus/euskarazko-zinema-etxean-online-ikusgai/>.
- e-liburutegia, filmak (maileguan): <https://eliburutegia.efilm.info/eu/eliburutegia/continentes/euskal-zinema/>
- Euskal Encodings webgunea: marrazki bizidunak, haur eta gazteentzako filmak jaisteko aukera. 200 marrazki baino gehiago eta haur eta gaztetxoentzako 500 filmetik gora.
 - **Filmak:** <http://www.euskal-encodings.com/aurkibidea/#/movies>
 - **Telesailak:** <http://www.euskal-encodings.com/aurkibidea/#/tv-shows>
- Iparra.eus, hainbat film zerrendatuta: <https://iparra.eus/filmak-euskaraz/>
- Berria aretoa, etxealdi honetarako euskal kultur gileen ekarpenak : <https://www.berria.eus/berriatb/berria-aretoa/>
- Web telesailak: '**Gutuberrak**', **Otsoen lurraldea**, **Tantaka**, **Pikuak**
- Youtuberrak: **Probatxoa**, **Super Txope**, **Porruren grabatokia**, **Arkkuso**

Musika euskaraz:

- Gaztea irratia: <https://www.eitb.eus/eu/gaztea/gaztea-online/>
- Badok: <https://www.badok.eus/>
- Txatxangorria.eus
- Spotify:
- Badcamp:

Jolasak euskaraz:

MOTIBATZEKO BIDEOA

- Jolasak.eu. Jolas sorta
- [On-line jolasak](#). Azkue Fundazioa
- [Euskal tribiala](#). Azkue Fundazioa
- [Etxean goxo](#). UEMAK egindako bilketa
- [Partxis-a baino gehiago](#). Barakaldo euskaraz
- [Plazan Bazan](#). Tokikom

- [Ikusbera](#)
- [Umeekin jolasteko hainbat bilduma](#). Berria-ren bilketa
- [Atopia](#). Rol joko (Zuzeutik jasoa)
- [Egunean behin](#)
- [Euskal Girotze Barnetegiak: oinarri, jolas eta tresna hezitzaileak](#)
- [EGB, dinamikak](#)
- [Urtxintxa, Jolasak](#)

Literatur irakurgaiak euskaraz:

Haur eta Gazte Literaturako irakurgai intesgarrien berri izateko:

- **Galtzagorri elkarte**: <https://www.galtzagorri.eus/eu/haur-eta-gazte-literatura/argitalpenak>
- **EIBZ, Eskolako Literatur Kanona** (Liburu Zerrenda eta Proposamen Didaktikoak): <https://sites.google.com/educacion.navarra.es/eskolako-literatur-kanona/>
- **MU-HUHEZI, Urtez Urteko Irakurgidak**: <https://www.mondragon.edu/eu/revistas-publicaciones/quia-literatura-infantil-juvenil>

Entzuteko Ipuinak, bideoa edota audioa:

- **Zuhaitz etxeko istorioak, Haur literatura edo irakurzaletasunarekin lotutako marrazki bizidunak**: [https://www.eitb.tv/eu/bideoa/zuhaiz-etxeko-istorioak/6245/150405/nondik-dator-tristura-handi-hau-\(eta-ingurukoak\)](https://www.eitb.tv/eu/bideoa/zuhaiz-etxeko-istorioak/6245/150405/nondik-dator-tristura-handi-hau-(eta-ingurukoak))
- **Ipupomamua**: <https://www.eitb.tv/eu/bideoa/ipupomamua--2010/4106963303001/4855/alargunen-erratza/>
- **Aittu (Pako Izagirre)**: <https://www.aittu.eus/>
- **Xerezaderen artxiboa**: <http://xerezade.org/>
- **Etxegiroan**: <http://etxegiroan.eus/eu/>

Irakurgaiak on-line:

- **e-liburutegia** (mailegu zerbitzua): <http://www.eliburutegia.euskadi.eus/>
- **Armiarma** atariko gune hauek: **liburu elektronikoak** (<http://armiarma.eus/liburu-e/>) eta **euskarari ekarriak** (<https://ekarriak.armiarma.eus/>). Non gazte irakurzaleentzako klasiko egokiak topa daitezke: *Huckleberry Finn-en abenturak*, *Robinson Crusoe*, *Marcovaldo edo urtaroak hirian* (Calvino), *Hilabete bat Montalbanorekin* (Camileri)...
- **Booktegi** liburu digitalak, doan: (gazte-literatura saila badu): <http://www.booktegi.eus/euskal-gazte-literatura-euskaraz%E2%80%93liburu-elektronikoak>
- Argitaletxeen webguneak. Adibide gisa, **Susa argitaletxea** (e-liburuen bilduma zabala eta merke eskaintzen baitu): <http://www.susa-literatura.eus/>
- Komikiak, **Komikipedia**: http://www.komikipedia.eus/index.php?title=Euskaraz_argitaratutako_komikiak_euskarri_digitalean

Euskal literatura klasikoa, rapeatuta:

- **‘Etxepare Rap’** ekimena (Imanol Epelde): <https://www.argia.eus/blogak/etxepare-rap/>